

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

Udal Talde Popularreko bozeramaile Borja Corominas Fisas naizen honek, Udaltzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua babespun, MOZIO ARRUNT hau aurkeztu dut.

JUSTIFIKAZIOA

Eusko Jaurlaritzako Garraio Sailak 144 bizikletarako aparkaleku estali bat egokitu zuen Easo plazako Euskotrenen geltokian. 2012ko irailean inauguratu zuten, eta Popoaren erabiltzaileentzat erreserbatuta zegoen. Jatorriz, donostiarrak geltokira bizikletaz iristea eta pedalei eraginda etxera itzultzea ahalbidetu behar zuen instalazio horrek: beste urrats bat bizikletaren eta trenaren arteko harremanak estutzeko bidean.

Euskotrenek ezarri zuenez, aparkatzeko gehieneko denbora 24 ordukoa zen, eta bizikletak uzteko eta kentzeko ordutegia Amarako Topoaren geltokiko bera izango zela, hau da, tren zirkulazioa zegoen bitartean. Trenaren erabiltzaileek beste inork ezin zuten erabili, eta, sartzeko, garraio titulu bat eraman eta baliozkotu beharra zegoen.

Baina errealitatea oso bestelakoa izan zen, eta bizikleta biltegi bihurtu zen aparkalekua, bai Topoaren erabiltzaileena bai ez zirena.

2019ko udan, mantentze lanak egiteko eta erabilera arauak aldatzeko, aparkaleku horretan utzitako bizikletak, jabeek jaso ez zituztenak, Euskotrenen zerbitzuek kendu zituzten.

Gaur egun, bizikleta aparkalekua itxita dago. Instalazio hori alferrik galdua bezain gero eta beharrezkoagoa da, gure hirian gero eta bizikleta gehiago daudelako.

Hori dela eta, hauxe da Alderdi Popularra udal taldearen

MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udaltzaren Eusko Jaurlaritzako Garraio Sailari hertsatuki eskatzen dio behar den inbertsioa egin dezala Amarako Topoaren geltokiko (Easo kalea) aparkaleku zerbitzua

egokitzeko eta erabilgarri jartzeko, denbora jakin baterako doako txandaketa sistema batez, hala, aparkatzeko doako epea amaitu bezain laster, ordaina eskatu ahal izateko.

Donostian, 2021eko martxoaren 5ean

Borja Corominas Fisas,

Udal Talde Popularraren bozeramailea.